

Eskolak bideokonferentzian, irakaslea Eskoriatzan eta ikasleak Bruselan daudela

2007/04/15

Azaroa ezker, hamabostean behin Asier Irizar euskara irakasleak hitzordua izaten du **Ainhoa Azarloza** eta **Amaia Belokirekin**, teknikariak biak Euskadiren Ordezkaritzan, Bruselan. Eskola presentzialak bideokonferentzia bidez egiten dituzte, Asier Eskoriatzan dagoela eta beste biak Bruselan.

Ainhoa eta Amaia **laugarren hizkuntza eskakizuna** ikasten ari dira, eta IVAPekin egindako hitzarmen bati esker, HUHEZIrekin egiten ari dira ikasketa horiek. Fakultatearen on-line plataforma erabiltzen dute materialak eta moduluak eskuratzeko, eta bideokonferentzia irakaslearekin hitz egiteko.



Baliabideak

Bideokonferentzia egiteko gauza gutxi erabiltzen dute:

- Skype programa. Horri esker, doan hitz egin eta artxiboak trukatzeko momentuan bertan.
- **Webcam bat**, alegia, bideo kamera txiki bat sarerako.
- **Aurikularrak** eta **mikrofono bat**.

Esperientzia hau aurten hasi da, eta bai irakaslea zein ikasleak oso pozik daude emaitzekin.